

7. LANA:GIZARTE AURREINDUSTRIALAIK GIZARTE POSTINDUSTRIALERA.

7.1. Gizarte industrialia eta soldatapeko lana.

Gizarte aurreindustrialetan jarduera ekonomikoak erabat murgilduta daude bizitza sozialaren beste arlo guztietan, hau da, ez da bereizten arlo ekonomiko espezializatu bat. Industrializazio prozesuak esparru ekonomiko espezializatuaren sorrera ekarriko du berarekin. Familiak utziko dio funtzio produktiboaren ardatza izateari eta, bere ordez, enpresak, izaera juridiko propio bereziarekin, hartuko du ekoizpenaren erdigunea. Beraz, honako hauek izango dira **gizarte industrialaren ezaugarriak**:

- 1) Enpresa eta familiaren arteko banaketa, goian aipatu dugun moduan.
- 2) Lanaren zatiketa sozialari, hau da, lanbide ezberdinen artean ematen denari, gehitu behar zaio lanaren zatiketa teknikoa. Langile bakoitzak ez du ondasun oso bat ekoiztuko, baizik eta horren ataltxoren bat.
- 3) Kapitalaren metaketa funtsezkoa da lanaren produktibitatea handitzeko. Langileak kapital (teknologia eta tresneria) jakin batekin lan egiten du, behin eta berriro berriztatu behar den kapitala, zaharkitua gelditzen delako.
- 4) Kalkulu ekonomikoa (errentagarritasun ekonomikoa) izango da jarduera ekonomiko gehienaren ardatza. Errentagarritasun soziala arlo politikoan eztabaidatzen da.
- 5) Langileen kontzentrazioa lan esparru bateratuan, hots, lantegian.

Testuinguru horren barruan emango da lanaren merkantilizazioa. Lana ekoizpenaren beste osagai bat baino ez da izango; soldata baten truke erosten den osagaia.

Lan merkantzia honek ondoko ezaugarri hauek izango ditu:

- 1) Arlo publikoan egiten da.
- 2) Beste batzuentzat erabilpenerako balore bat sortzen du.
- 3) Saldu egiten da beste edozein merkantzia moduan. Prezio bat izaten du: **soldata edo alokairua.**
- 4) Neurgarria da bai denboran edo bestelako emaitza neurgarri batzuetan. Azken neurri hauek beti denbora abstraktu bat izango dute oinarrizko neurritzat. Neurketa honen bidez ezartzen zaio prezioa dirutan.

7.2.- Lanaren azterketa soziologia klasikoan: Marx eta Durkheim.

Soziologiaren jaiotza gizarte industrialaren agerpenarekin batera ematen da. Hori dela eta, egile klasikoen ardatz nagusi bat lan industrialaren analisisa izango da.

Marx: Lanaren alienazioa eta zapalketa.

Marxentzat gizakia *homo faber* da, alegia, natura eraldatuko duen izakia. Baina gizarte kapitalistan, lana bera beste merkantzia bat bihurtzerakoan, lana alienatu egiten da. Langileak galdu egiten du berak sortzen dituen ondasunen kontrola, baita ekoizpen prozesuaren kontrola. Lana ez da izango norbere burua errealizatzeko modu bat langile gehienontzat, ez dutelako lan prozesu hori kontrolatzen. Fenomeno horri **alienazioa** deritzogu.

Beste alde batetik, lanaren zapalketa ere agertzen da kapitalismo barruan. Balio erantsia sortzen duen faktorea lana bada, honek sortutako aberastasuna ez da bere eskuetara helduko. Soldata, langileak sortutako balioaren zati txiki bat baino ez da. Gainbalioa edo plusbalio hori kapitalisten eskuetara joaten da eta hori da, hain zuzen, **zapalketa kapitalistaren** gakoa. Lan harremanen esparruan ematen diren borroka gehienak gainbalio horren banaketaren inguruan izaten dira.

Durkheim: Lanaren zatiketa soziala.

Durkheimen kezka nagusi bat gizartea aztertzerakoan, gizakion arteko elkartasunaren mekanismoak izan ziren. Bere ustez, aldaketa sozialaren dinamikak sinpletasunetik konplexutasunera eramaten ditu gizarteak. Horretarako mekanismo nagusia lanaren zatiketa soziala da.

Gizarte sinpleenetan lanaren zatiketa oso txikia da. Hortik ondorioztatzen den **elkartasuna mekanikoa** izango da, hots, berez ematen den elkartasuna gizataldearen presentzia arlo guztietan ematen delako. Giza-emakume guztiok erabat murgildurik daude bere inguruko talde sozialean.

Aldiz, gizarteak konplexuagoak direnean **elkartasuna organikoa** izango da, hau da, lanaren zatiketa sozialaren ondorioz bestean behar interesatu bat izaten dugu. Ez dugu zergatik balore partekatuak eduki behar honelako elkartasun organikoa izateko. Besteokin batera egoten gara euren zerbitzuak edo ondasunak behar ditugulako. Batera egonda nahiko indibidualistak izaten gara. Lanbideak eta lanaren inguruan ematen diren harremanak nahiko inportanteak izango dira, baina ez dute nortasun bateratua sortzen. Alde horretatik, Durkheimen ustez, askatasun handiagoa izango dugu gizarte berri hauetan.

7.3. Gizarte postindustrialia eta lanaren arazo berriak.

Azken hamarkadatan, informazio eta komunikazioen teknologien (IKT) garapenarekin, lanaren izaerak aldaketa sakon bat jasan du. Honen harira, Daniel Bell soziologoak gizarte postindustrialaren kontzeptua landu du. Jarduera ekonomiko nagusia ez da industria baizik eta zerbitzuak, gehienbat IKT horiekin lotutako zerbitzuak. Gizarte postindustrialak ezagupenaren gizarteak dira, beraz lanbide berriak prestakuntza akademiko handikoak izaten ari dira. Langile espezializatua, gizarte industrialaren zutabe nagusia, baztertua gelditzen da antolaketa berri honetan bere lanak industrializazio berriko herrialdeetara joaten direlako. Aldi berean, zerbitzuetan lan egiten dutenen egitura gero eta konplexuagoa bihurtzen da.

7.4. Lanaren nazioarteko zatiketa.

Postindustrializazioarekin batera zabaldu den beste fenomeno globalizazioa da. Globalizazioa nazioarteko lanaren zatiketa berri baten sinonimoa da. Hiru dira prozesu honen ezaugarriak:

- 1) Lan indar merke eta ugariaren eskaintza.
- 2) Kualifikazio ez oso handiaren beharra zenbait lan industrialetarako.
- 3) Nazioarteko garraio eta komunikazio sare zabal baten hedapena mundu osoan zehar.

Lan indarrean intentsiboak diren prozesu industrialak lekuz aldatzen dira deslokalizazio edo deslektze moduan ezagutzen den joera indartuz. Gainera, babes gabeko lan harremanen sistemak oso erakargarriak bihurtzen dute herrialde horiek enpresa multinazionalentzat.

Nazioarteko lanaren zatiketa berriaren joerak:

- 1) Mundu mailako merkataritza dinamikoa, Atlantikotik Pazifikora mugitzen ari dena.
- 2) Ekoizpenaren transnazionalizazioa, lehen aipatu dugun deslokalizazioarekin batera.
- 3) Finantzen kapitalaren nagusitasuna, oraingo krisian ikusi dena.
- 4) Botere politiko eta ekonomikoaren kontzentrazioa.
- 5) Migrazioak eta lanaren nazioarteko mugikortasun kontrolatua.